

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2023ko abendua

2023an, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak %10,4 egin dute gora, eta gaualdiak %12,0, 2022 urtearekin alderatuta

2023ko abenduan, sarrerak %6,6 eta gaualdiak %7,0 hazi dira, 2022ko abenduaren aldean

Eustaten datuen arabera, 2023an 3.687.240 sarrera eta 7.214.545 gaualdi izan dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan. 2022. urtearen aldean, sarrerak %10,4 gehitu dira eta gaualdiak %12,0.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak eta batez besteko egonaldia. 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2023	p/p-1 (%)	2023	p/p-1 (%)	2023	2022
EUSKAL AE	3.687.240	10,4	7.214.545	12,0	1,96	1,93
Estatukoak	2.013.945	3,7	3.883.449	5,1	1,93	1,90
Atzeritarrak	1.673.295	19,7	3.331.096	21,3	1,99	1,97
Araba/Álava	503.596	11,2	998.496	18,2	1,98	1,87
Estatukoak	349.857	10,7	699.341	15,3	2,00	1,92
Atzeritarrak	153.739	12,6	299.155	25,7	1,95	1,74
Vitoria-Gasteiz	385.087	14,8	799.431	23,3	2,08	1,93
Bizkaia	1.688.130	11,5	3.233.468	11,8	1,92	1,91
Estatukoak	937.583	2,9	1.737.531	2,4	1,85	1,86
Atzeritarrak	750.547	24,6	1.495.937	25,1	1,99	1,99
Bilbao	1.151.352	10,9	2.233.620	12,9	1,94	1,91
Gipuzkoa	1.495.514	8,8	2.982.581	10,3	1,99	1,97
Estatukoak	726.505	1,5	1.446.577	3,9	1,99	1,95
Atzeritarrak	769.009	16,8	1.536.004	17,0	2,00	1,99
Donostia / San Sebastian	960.282	11,3	1.947.513	11,4	2,03	2,03

p/p-1 Azken aldian izandako urte arteko aldakuntza-tasa (p), aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (p-1)

Data 2024ko Urtaeraren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Lurralde historikoei dagokienez, 2023an, Arabako hotel-establezimenduetako sarrerak 503.596 izan dira, hau da, Euskal AEko guztizkoaren %13,7, eta 998.496 gaualdi izan dira, guztizkoaren %13,8. Bizkaia sarreraren %45,8 jaso ditu, 1.688.130, eta gaualdien %44,8, 3.233.468. Gipuzkoak, sarreraren %40,6, 1.495.514, eta gaualdiak %41,3 izan dira, 2.982.581.

Zifra horiek adierazten dute sarreraren urteko hazkundea %11,2koa izan dela Araban, %11,5koa Bizkaian eta %8,8koa Gipuzkoan. Gaualdien bilakaera antzekoa izan da: 2023an %18,2 igo dira Araban, %11,8 Bizkaian eta %10,3 Gipuzkoan, aurreko urtearen aldean. Nabarmentzekoak dira Euskal AEko atzeritar jatorriko sarrera eta gaualdien gehikuntza, %19,7 eta %21,3, hurrenez hurren.

Hiru hiriburuen portaera dagokion lurraldeko gainerako lurraldeena baino hobeia izan da: urtean zehar metatutako sarreraren kopurua %14,8 hazi da Gasteizen, %11,3 Donostian eta %10,9 Bilbon. Gaualdien kasuan, antzera, urteko hazkundeak %23,3ra iritsi dira Gasteizen, %11,4ra Donostian eta %12,9ra Bilbon.

Batez besteko egonaldia 1,96 egunekoa izan da Euskal AE osoan 2023an, aurreko urtean baino zertxobait hobeia (1,93 egun). Araban 1,98 egunekoa izan da, eta 2022an 1,87; Bizkaian 1,92 egunekoa izan da, 2022ko 1,91aren oso antzekoa; eta azkenik, Gipuzkoan 1,99 egunekoa izan da, aurreko urteko 1,97aren aldean.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2023

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2023	p.p. *	2023	p.p. *	2023	p/p-1 (%)	2023	p/p-1 (%)
EUSKAL AE	57,8	3,9	68,5	5,0	108,25	9,6	74,12	18,2
Araba/Álava	54,5	4,4	67,9	5,2	84,31	3,9	57,26	12,4
Vitoria-Gasteiz	55,6	5,4	71,8	6,1	71,03	4,8	50,97	14,5
Bizkaia	56,0	4,2	67,7	5,8	100,70	10,5	68,13	20,8
Bilbao	61,3	5,5	73,4	7,7	111,14	10,4	81,52	23,3
Gipuzkoa	61,1	3,3	69,6	3,9	125,22	10,7	87,20	17,4
Donostia / San Sebastian	65,8	3,0	73,4	4,2	151,62	9,2	111,29	15,8

p/p-1 Azken aldian izandako urte arteko aldakuntza-tasa (p), aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (p-1)

p.p.*= aurreko urteko portzentajeazko puntuko aldea

Data 2024ko Urtarrilaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Hotel-establezimenduetan, 2023ko okupazio-maila %57,8koa izan da Euskal AE osoan plazen arabera neurtuta, eta %68,5koa logelen arabera neurtuta. 2022. urtearen aldean, igoera ehuneko 3,9 puntukoa izan da plazen okupazio mailaren kasuan, eta 5,0 puntukoa logelen kasuan.

Errentagarritasun-adierazleei dagokienez, eguneko batez besteko tarifa (ADR) 108,25 eurokoa izan da 2023 amaieran, eta logela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar) 74,12 eurokoak. Biak ala biak, aurreko urtekoak baino altuagoak izan dira, ADR %9,6ko aldearekin eta RevPar %18,2.

2023ko abenduan, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak %6,6 gehitu dira eta gaualdiak %7,0, urte arteko baliotan. Sarrerak 255.471 izan dira, eta guztira 470.907 gaualdi izan dira.

2023ko abenduko sarrera guztien %30,9 eta gaualdien %31,5 atzeritar jatorrikoak izan dira, 2022ko abenduan erregistratutakoak baino ehuneko handixeagoak, iaz %28,9 eta %29,1 izan baitziren, hurrenez hurren. Estatutik etorritako sarrerak eta gaualdiak %3,7 eta %3,4 igo dira urte artean, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak eta batez besteko egonaldia. Abendua 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2023/12	m/m-12 (%)	2023/12	m/m-12 (%)	2023/12	2022/12
EUSKAL AE	255.471	6,6	470.907	7,0	1,84	1,84
Estatukoak	176.561	3,7	322.634	3,4	1,83	1,83
Atzerritarrak	78.910	13,8	148.273	15,6	1,88	1,85
Araba/Álava	36.190	-3,4	73.275	7,8	2,02	1,81
Estatukoak	29.320	-5,8	57.220	2,1	1,95	1,80
Atzerritarrak	6.870	8,3	16.055	34,2	2,34	1,89
Vitoria-Gasteiz	29.119	-4,9	62.338	9,2	2,14	1,87
Bizkaia	120.474	9,5	217.145	7,1	1,80	1,84
Estatukoak	87.568	7,3	153.191	4,4	1,75	1,80
Atzerritarrak	32.906	15,6	63.954	14,2	1,94	1,97
Bilbao	83.846	3,7	153.789	3,3	1,83	1,84
Gipuzkoa	98.807	7,2	180.487	6,5	1,83	1,84
Estatukoak	59.673	3,6	112.223	2,8	1,88	1,89
Atzerritarrak	39.134	13,3	68.264	13,3	1,74	1,74
Donostia / San Sebastian	69.295	7,4	125.919	6,6	1,82	1,83

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Urtarrilaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Araban 36.190 sarrera eta 73.275 gaualdi erregistratu dira, hau da, sarrerak %3,4 jaitsi dira, baina gaualdiak %7,8 gehitu dira aurreko urteko abenduaren aldean. Bizkaian, sarrerak %9,5 hazi dira eta gaualdiak %7,1; guztira 120.474 eta 217.145. Gipuzkoan, 2023ko azken hilabetearen, 98.807 sarrera erregistratu dira, 2022ko abenduan baino %7,2 gehiago, eta 180.487 gaualdi, aurreko urteko hil berean baino %6,5 gehiago.

Hiriburuka, sarrera-kopurua %4,9 jaitsi da Gasteizen, eta %7,4 igo da Donostian eta %3,7 Bilbon. Gaualdiei dagokienez, aurreko urteko abenduaren aldean, gehikuntzak izan dira hiru hiriburuetan: Gasteizen %9,2, Donostian %6,6 eta Bilbon %3,3.

2023ko abenduan batez besteko egonaldia 1,84 egunekoa izan da Euskal AE osoan, 2022ko hil berean izandakoaren berdina.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Abendua 2023

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2023/12	p.p. *	2023/12	p.p. *	2023/12	m/m-12 (%)	2023/12	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	46,8	2,5	54,5	3,7	84,57	6,5	46,05	14,2
Araba/Álava	47,0	1,1	58,2	3,2	75,24	4,2	43,78	10,2
Vitoria-Gasteiz	49,9	2,2	63,6	4,9	68,43	5,1	43,55	13,9
Bizkaia	46,8	3,9	54,9	5,2	84,63	7,9	46,42	19,2
Bilbao	51,9	3,3	60,0	5,1	89,61	7,0	53,80	16,8
Gipuzkoa	46,7	1,4	52,6	1,9	88,43	5,9	46,48	9,8
Donostia / San Sebastian	50,3	0,9	54,7	1,0	97,55	5,5	53,37	7,4

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Urtarrilaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AE osoan, 2023ko abenduko okupazio-maila %46,8koa izan da plazen arabera neurtuta, eta %54,5ekoa logelen arabera neurtuta. 2022ko abenduaren aldean, hazkundea ehuneko 2,5 eta 3,7 puntukoa izan da, hurrenez hurren.

Errentagarritasuna, ADR edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtua, 84,57 eurokoa izan da Euskal AE osoan 2023ko abenduan, hau da, %6,5eko igoera izan da aurreko urteko abenduaren aldean. ADRa 88,43 eurokoa izan da Gipuzkoan, 84,63 eurokoa Bizkaian eta 75,24 eurokoa Araban. Hiriburuen arabera, aldeak handiagoak izan dira: ADRa 97,55 eurokoa izan da Donostian, 89,61 eurokoa Bilbon eta 68,43 eurokoa Gasteizen. Euskal AEn, 2023ko abenduan, RevPar edo gela erabilgarriko batez besteko diru-sarrerak 46,05 euro izan dira, aurreko urteko hil berean baino %14,2 gehiago.

Informazio-oharra

2023ko abenduko hotelen ETHren estaldurari dagokionez, **%81,2koa** izan da. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62